

**Unai Rementeria**  
**Bizkaiko Ahalduen Nagusirako hautagaia**  
**Candidato a Diputado General de Bizkaia**  
**Bermeo (2019-05-20)**

**Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.**  
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Arratsaldeon Bermio! Danontzat gaur egun berezixe da. Ikusi dogu zelako indarra dekon Aritzek. Zelako proiektue. Ze argi dekon!! Hori bai dala lider bat. Indarra. Argitasuna. Eta lana. Hori da Aritz. Bermiok behar dauen alkatea!! Bermiok eukiko dauen alkatea eta liderra. Abante Aritz! Abante!

Esan deusuet gaur egun berezixe dala. Hautagai hoberena daukogu. Eta lantalde hoberena. Talderik gabe ez gara ezer. Eta badakit zertaz ari naizen. Badakit, Maitane. Oso ondo dakit. Altxor bat zara. Bermioko gure altxorra. Gaur zure lan guztia eskertu nahi neutsun. Zure babesa. Eta zure fideltasuna. Eskerrik asko Maitane. Lantalde hoberena dekozue. Zaindu eizue taldea!!.

Bueno, etxien nau. Beti euki dot Bermio neurietzat!! Ama bertokue da. Bermiotarra! Arronategikue. Nik hamen ikasi neban, ikastolan. Eta hemendik nabil ia ia egunero. Eta neuk ikusten dot. Bermiok aldaketa behar dau. Eta aldaketa hori Aritz ek dakar! Onerako aldaketa gu gara! Euzko Alderdi Jeltzalea gara!

Batzuek arazoak besterik ez dabez ikusten. Arazoak, besterik ez. Eta errua beti aurrekoarena da, bestiena. Beti. Eta zer egiten dabe? Pankarta atara. Eta aldarri, zarata egin. Pankarta eta zaratie. Holan konpontzen dira arazuek? Holan? Ez!!! Arazuek lan egiten konpontzen dira. Lan asko egiten. Askok eta asko. Ez dau beste urtenbiderik. Baina lan egitea gatza da. Errezena pankarta ta aldarrixe egitea. Ideak mahai gainean ipintzea gatza da. Aurrera ateratzea gatza da. Bai, gatza da. Baina horretarako gagoz. Gu behintzat horretarako gagoz! Lan egiteko. Ideiak aurkezteko. Eta aurrera eroateko. Aurrera! Bermio eta Bizkaia beti aurrera. Euzko Alderdi Jeltzalearekin beti abante.

Esandakoa.

Batzuk arazoak besterik ez dabez ikusten. Badakizue zer ikusten dodan nik Bermiora etorten nazenien? Aukerak. Oportunitadiek! Kriston aukerak. Aukerak ikusten dodaz portuen. Portue altxor bat da. Portue bizibarritu egin behar dogu. Eta Aldundiak eta Gobernuak argi daukagu bai! Orain Udalak euki behar dau argi. Eta Aritz- en udalak, bai daukala argi!

Itsasoa gara. Eta itsasoa izaten jarraitu behar dogu. Kriston aukerak ikusten dodaz San Juan Gaztelugatxen. Beste altxor bat. Imana da Bizkaientzat. Erakargarria. Gaztelugatxe zaindu, sustatu eta hobetuko dogu. Errespetu osoz. Guk Doniene maite dogu. Horregatik zaindu egiten dogu. Guztiengan pentsatuz Danatan. Pasealeku berdea egingo dogu Bermio, Matxitxako, Doniene eta Bakioren artean. Pasealeku berdea itsasoaren gainetik. Ibilaldi ederra. Aisialdia, osasuna, paisaia bat eginda. Bizi kalitatea. Zuontzako.

Irisgarritasuna hobetuko dogu. Batez be garraio publikoarena. Horregatik gagoz hemengo disuasio-parkinarekin. Aldundiak Doniene zaintzen dau. Aldundiak Doniene maite dau. Eta Aldundiak Doniene hobetzen dau.

Eta Solluben gora ta behera noanien. Eta egunero joan eta etorten naz. Batzutan lau bider be bai! Solluben be, aukerak ikusten dodaz Bai. Lan egiteko aukerak. Aitorregaz berba egin eta Madrilen borrokatzeko. Izaskunegaz berba egin eta Bruselan borrokatzeko. Aldundiak bakarrik ezin dau, hain erraldoia den obra bakarrik egin. Baina besteekin bai. Eta hori lantzen gabiltza. Ez gagoz geldirik, ez!! Ez pankarta batekin. Ez aldarrike. Ez!!! Lan egiten. Egunero lan egiten. Hemen. Bilbon. Madrilen. Bruselan. Edonon. Eta lortuko dogu! Ziur!! Seguru nago!!!

Eta beti aurpegia emon dogu. Ni oso argia izan naz. Egon naizen bakoitzean argi egin dot berba. Guzurrakaz ez da inora joaten. Hori da gure eredu. Lana, lana eta lana. Eta zergatik hainbeste lan? Gure kostaldearekin konprometituta gagozelako. Konprometituta Bermio eta Bizkaia gaz. Bermio, abante! Bizkaia, abante!

Berbie daukagu. Eta berbie bete dogu. Gobernu programaren %96a beteta. 30.000 pertsona gitxiago langabezian azken lau urteetan. 117.000 pertsona desgaitu, nagusi, adingabe... urtero zaintzen doguz. Hobeto gagoz Baina ez gara lokartzen. EAJ ez da lokartzen. Danatan hobetu behar dogu. Eta hobetzeko proiektu bat daukagu. Bermio eta Bizkaia rentzat proiektu bat daukagu.

Es así. Tenemos un proyecto para Bizkaia. Para la Bizkaia verde. Para los pueblos de la ría. Y para la costa. Todos estos proyectos mejoran Bizkaia. Pero no solo eso. Mejoran también el empleo y la calidad de vida. Yo veo empleo y calidad de vida en mejorar San Juan de Gaztelugatxe. Veo empleo y calidad de vida en apoyar al comercio local. Veo empleo y calidad de vida en el espacio para el arte rupestre en Lea Artibai.

Cada proyecto para mejorar Bizkaia es una herramienta para mejorar el empleo y la calidad de vida. El gran proyecto colectivo de Bizkaia es el empleo. Eso sí. Empleo estable y digno. Contratos largos y salarios dignos. Es la mejor garantía de futuro que tiene esta sociedad. Con el PNV, empleo, empleo y empleo.

Itsasontziak gasoleoa behar du. Bestela ez da mugitzen. Guk bardin. Zuon botoak behar doguz. Danak. Danak. Aldundi indartsu, fuerte batek Bizkaia hobetzen daua erakutsi dogu. Bermio hobetzen daua. 26an zuok erabakitzen dozue. Aurrera edo atzera. Boto bakoitzak balio dau. Eta asko balio dau. Baina bakarrik izango dire balioarriak umatan sartzen badoguz. Bakarrik bozkatzen badugu.

Plentzia bi botogatik galdu gendun. Ondiño gauz lamentetan. Mañaria, beste bigatik. Ondiño lamentetan. Mallabia hirugatik irabazi gendun. Barakaldo 52gatik irabazi gendun.

Edonoren botoa izan leike. 27an inor ez daitela ez joateagatik damutu. 26an danok botoa emotera. Bermiogatik bozkatzera. Bizkaia gatik bozkatzera. EAJ bozkatzera. Euzko Alderdi Jeltzalea.

Abante Bermio!  
Abante Bizkaia!